

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

Bake epailea eta haren ordezkoa hautatzea

Aurreko bake epaileak bukatu du bere agintaldia; beraz, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 101. artikulua eta hurrengoek eta Bake epaileen Erregelamenduaren 4. eta 5. artikuluek xedatutakoa betez, honen bidez jakinarazten da ediktu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera 15 egun baliodun izango direla betekizunak betetzen dituzten interesdun guztiek eskaera aurkez dezaten, udaletxe honetan. Halaber, interesdunei jakinarazten zaie espediente osoa Idazkaritzan dutela, nahi izanez gero, azter dezaten. Eskabide horrekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Jaiotza ziurtagiria.
- Zigor aurrekarien ziurtagiria.
- Bake epaile izatea galarazten duen gaixotasunik ez dela egiaztatzen duen mediku agiria.
- Legeak ezarritako bateraezintasunik ez dela aitortzen duen zinpeko aitortpena.

Lapuebla de Labarca, 2018ko martxoaren 27a

Alkatea

MAIDER MURILLOTREVIÑO